



Fitxa teknikoa

Barruko Leihoa. Pello Añorga & Jokin Mitxelena. Pamiela. Iruñea, 2016

Liburuaren aurkezpena

Poema bilduma bat aurkezten digu Pello Añorgak eta, esatea zilegi bada, Jokin Mitxelenak poema bisual bilduma bat.

Leihoak kanpoko eta barruko espazioak mugatu eta komunikatzeko omen dira. Baina gure baitan ere leiho desberdinak sortzen ditugu pentsamenduak, sentimenduak eta emozioak elkarrekin komunikatzeko.

Poesiak leiho baten funtzioa betetzen du; hari horretatik tiraka liburu honen mintzagaiak gure barruan leiho ugari zabalduko ditu, bizitzaren zikloa eta naturarena gure barne sentsazioekin batuz, gure sentiberatasuna suspertzeko.

Sentimenduz beteriko poematxoak eskaintzen dizkigu liburu honek; bertsifikazio xamurra, xaloa, memorian iltzatzeko erraza, unibertso oso bat iradokitzen digu hitz jolasez eta misterioz bete. Jolasteko poemak, asmatzeko poemak, esateko poemak, barruan gordetzeko poemak...

Irudi plastikoek ere beste hainbeste eskaintzen digute: sua, ura, argia, loreak, txoriak... Trazo luzetan bistaritzen zaizkigu, baina, ia-ia, aienatzen diren tinta orbainek bukatu gabeko sentsazioa sortzen digute, gure barruko leihoak zabaldu eta sentsazio berriak sortuz.

Proposamenak bideratzen

- Gustuko poema batzuk aukeratu, buruz ikasi eta beste gela batean poema errezitaldi bat antolatu.

- Poema bilduma bat egin. Haur bakoitzak bere gustuko poema bat aukeratuko du eta hura kopiatuko du; denen artean, poema bilduma osatu irakurtzeko, beste gela batean azaltzeko...
- Ahokorapiloak irakuketa jolasak bihurtu. Buruz ikasi ondoren hitz bakoitza txartel banatan idatzi, eta trukaketa jolasak burutu, ordenez aldatu, hitzak kendu eta zein falta den asmatu...